

EGUNEKO ARRETA, ZAINZAILEAK ALDI BATERAKO ATSEDENA HAR DEZAN

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Desgaitasuna duen 18+ pertsona > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Desgaitasunen bat duten pertsonen **zaintzaile nagusiak eta senideak**, zaintzan atsedena behar dutenak.

Kostua

Koordinaketaren menpeko zerbitzua, onuradunaren egoera ekonomikoaren eta erabileraren arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedeen hartzeko beharra.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Zaintzaile ez profesionalek beren etxeetan artatu ohi dituzten desgaitasun bat duten pertsonen aldi baterako egonaldia egoitza-zentroetan edo gaueko zentroetan ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedeen hartu behar du, oporretara joan behar du...).

Norentzat?

Desgaitasuna duen pertsonaren **zaintzaile nagusia eta ez profesionala**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta baliabidea erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Ezgaitasuna duen pertsona zaindua eta zaintzailea **etxebizitza** eta **udalerrri berean erroldaturik egotea**.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea **12 hilabetez**.

Dagokion eguneko zerbitzura sartzeko **baldintzak betetzea**.

Zaintzailea eta ezgaitasuna duen pertsona **elkarrekin bizi direla egiaztatzea**, zaintzak ematea justifikatzen bada Udaleko Gizarte Zerbitzuen txostenaren bidez.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Araban](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Bizkaian](#)
- [Egunean zehar zaintzaileak atsedean hartzeko arreta Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)